

GABRIEL FALOPIO

Iñaki Azkune Mendia*

Zirujau-anatomista italiar hau, Modena-n (Italian) jaio zen 1523. urtean. XVI. mendeko anatomistarik garrantzitsuen da. Modenako katedralean kalonje izan zen, baina medikuntza-ikasketak egitera Ferrarako Unibertsitatera itzuli zen, han anatomi irakasle izan zelarik. 1548. urtean, Pisako Unibertsitatean, kirurgia eta anatomiako irakasle izendatu zuten, eta 1551. urterarte egon zen, lanpostu hartan. Paduako Unibertsitateko katedra ere lortu zuen.

Gorpuak diseinatzean, Falopiok erabateko azterketak egiten zituen. Hautan ateratako emaitzak, *Observationes Anatomicae* lanean argitaratu zituen. Behaketa haien guztien ondorioz, hainbat gauza garrantzitsu aurkitu zuen. Besteak beste, epifisia (hezur luze baten muturra, muin gorria duena), periostioa (hezurra inguratzen duen mintz konjuntiboa), buruko hezur batzuk, Falopioren ligamentua, barne-belarria eta bi sexuetoako organo genitalen barneko hainbat zati.

Barne-belarriaren kasuan, tinpanoaren korda, kanal erdizirkularrak eta Falopioren akueduktua deskribatu zituen. Organo genitalen kasuan berriz, obuluak obariotik uterora bideratzen dituen hodiak deskribatu zituen. Falopiok, ez zuen hodi hauen funtzioa ezagutzen; obuluak ez baitziren beste hiru mende pasa baino lehen aurkituko. Gaur egun hodi hauei, Falopioren tronpa deritze. Hodi txiki hau, karabillaturik dago, oso kalibre edo diametro konplexua du, eta gainetik, 10 eta 14 zentimetro bitarteko luzera duen epitelio zilindriko ziliatuaz estalirik dago. Organo honek hanturak maiz izaten ditu eta horietako bi, "salpingitis" eta "anexitis" izenekoak dira.

Salpingitisaren kasuan, hantura aldebakarra edo arruntagoa den aldebakarra izan daiteke. Normalean, hanturek jatorri bat baino gehiago dute, amaberriaren hantura, abortu ondorengo hantura eta gonokozia (gonokokoak sortutako hantura) izan daitezkeelarik. Antibiotikoei esker, konplikazio larriak (peritonitisak) oso



urri dira eta ondorioak (antzutasuna) dituzten kasuak asko murriztu dira.

Anexitisak, tronpako kalibre edo diametroari oztupoa jartzen dio, eta ondorioz, antzutasuna eragin dezake. Hantura honen eragileak, mikrobioak dira.

Kasu batzuetan ernaldutako obuluak, tronpako mukosan gera daitezke, ondorioz tubariko deituriko haurdunaldi anormala izaten delarik.

Gabriel Fallopio, Paduan (Italian) hil zen, 1562. urteko urriaren 9an.



* ZETIAZ-Elhuyar